Campo & Ochandiano

Teknologia eta Eraldaketa Digitaleko arduraduna

Lanpostuaren egitekoa

BBKren Teknologia eta Eraldaketa Digitalaren arloa zuzentzea, Antolakuntza Zuzendaritzaren mende, zerbitzu teknologikoen funtzionamendua eta segurtasuna bermatuz eta datu-proiektuak, IA eta prozesuen hobekuntza bultzatuz.

Funtzio nagusiak

- Arloaren ibilbide-orri teknologikoa eta urteko plana zehaztea eta Zuzendaritzari proposatzea, aurrekontua eta baliabideak kudeatuta.
- Taldea zuzentzea eta garatzea, helburuak finkatuz eta haren jarduna ebaluatuz
- BBK-ko arloetako behar teknologikoei lehentasuna ematea eta proiektuen zorroa gainbegiratzea, definitzen denetik zerbitzuan jartzen den arte.
- IKT zerbitzuen kalitatea, erabilgarritasuna eta jarraitutasuna bermatzea: erabiltzaileentzako euskarria, azpiegitura, komunikazioak eta aplikazioak.
- Hornitzaileak eta kontratu teknologikoak kudeatzea, zerbitzu-mailak ezarriz eta horien hautaketa eta jarraipena erosketekin eta zuzendaritzarekin koordinatuz.
- BBKren datuen, lurralde-adimenaren eta adimen artifizialaren gaitasunen garapena gidatzea, erabilera-kasuak lehenetsiz eta horien adopzioa bultzatuz.
- Zibersegurtasuna, sarbideen kudeaketa eta zerbitzuen jarraitutasuna gainbegiratzea, eta Zuzendaritzari arrisku garrantzitsuak helaraztea.
- Prozesuen automatizazioa, digitalizazioa eta etengabeko hobekuntza bultzatzea.
- Arloko adierazleak definitzea eta horien jarraipena egitea, eta Zuzendaritzari aurrerapenen, arriskuen eta beharrezko erabakien berri ematea.

Beharrekoa da:

- Informatika, telekomunikazio edo antzeko unibertsitate-titulua.
- Erantzukizun teknologikoko lanpostuetan gutxienez 5 urteko esperientzia izatea, eta esperientzia egiaztatua izatea taldeen zuzendaritzan, hornitzaileen kudeaketan, aurrekontuetan eta eraldaketa digitaleko proiektuen gauzatzean.
- Soluzio teknologikoak ezartzen eta ekoizten esperientzia izatea, datuei, zibersegurtasunari eta adimen artifizialari buruzko ezagutzekin.
- Lidergoa, lehentasunak ezartzea, erabakiak hartzea eta emaitzetara bideratzea.
- B2 gutxieneko euskara-maila.

Honako hauek baloratuko dira:

- Antzeko gaietako masterra edo graduondokoa.
- Datu-proiektuetan, adimen artifizialean, automatizazioan eta zibersegurtasunean esperientzia izatea.
- Ingelesaren ezagutza (B2 maila).

Berehalako laneratzea, kontratu mugagabea eta lehiakorra den ordainsaria **eskaintzen dira**, hautagaiaren mailari eta esperientziari egokitua.